



*Fernando R. Bartolomé García :: Laura Calvo García*

# Laudio / Llodio

**ERMUKO ANDRA MARIEN SANTUTEGIA  
EL SANTUARIO DE NUESTRA SEÑORA DEL YERMO**





*Ermuko Andra Maríren santutegia (Llodio)*  
*bertako ondare historiko-artístikoaren bitartez*

*El santuario de Nuestra Señora del Yermo (Llodio)*  
*a través de su patrimonio histórico-artístico*



*Ermuko Andra Mariren santutegia (Laudio)  
bertako ondare historiko-artístikoaren bitartez*

*El santuario de Nuestra Señora del Yermo (Llodio)  
a través de su patrimonio histórico-artístico*

Fernando R. Bartolomé García  
Laura Calvo García

Artearen Historia eta Musika Saila / Departamento de Historia del Arte y Música  
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco

Laudio Udala / Ayuntamiento de Llodio

Babesleak / Patrocinado por:  
Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila /  
Departamento de Educación, Política lingüística y Cultura del Gobierno Vasco  
GPAC, Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco  
UNITWIN. Unesco Chair on Cultural Landscape and Heritage

## Fitxa katalogafikoa/Ficha catalográfica

BARTOLOMÉ GARCÍA, Fernando R.

Ermuko Andra Mariren santutegia (Laudio) bertako ondare historiko-artistikoaren bitartez = El santuario de Nuestra Señora del Yermo (Llodio) a través de su patrimonio histórico-artístico / Fernando R. Bartolomé García, Laura Calvo García ; [itzulpena = traducción, Gontzal Fernández Valeiras]. – Audio-Llodio : Audio Udala = Ayuntamiento de Llodio, 2016. -- 155 p. : il., col., plan. ; 23,5 x 17 cm

ISBN 978-84-608-9082-9

1. Santuario de Nuestra Señora del Yermo (Llodio) I. Calvo García, Laura R. II. Fernández Valeiras, Gontzal (trad.). III. Audio-Llodio. Ayuntamiento.

726.76(460.156 Audio-Llodio)

“Ermuko Andra Mariren santutegiari eta Ermualderi dagokien garrantzia aitortzea eta gizarteari horren berri ematea” proiektua. Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldea (OEIT), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

Proyecto “Puesta en valor y difusión social del santuario de santa María del Yermo y su entorno”, Grupo de Investigación en Patrimonio Construido (GPAC), Universidad del País Vasco (UPV/EHU)



**Edizioa/Edición:** Audio Udala / Ayuntamiento de Llodio

Fernando R. Bartolomé García, Laura Calvo García

**Itzulpena/Traducción:** Gontzal Fernández Valeiras

**Argazkiak/Fotografias:**

1, 4-20, 23-33: Laura Calvo García, Fernando R. Bartolomé García

2, 3: Ana Álvarez Llamas

21, 22: Arabako Foru Aldundiaren Zaharberrikuntza Zerbitzua/

Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava

**ISBN:** 978-84-608-9082-9

**Lege-gordailua/Depósito legal:** VI 457-2016

**Inprimatzea/Imprime:** Gráficas San Martín, Vitoria-Gasteiz





# Aurkibidea

<b>Hitzaurrea</b> .....	10
<b>Aurkezpena</b> .....	16
<b>Sarrera</b> .....	20
<b>1. Arkitektura</b> .....	28
1.1. Eraikuntza faseak.....	28
1.2. Barrualdea: nabea.....	30
1.3. Kanpandorre exentua.....	42
1.4. Sakristia.....	44
1.5. Aretoko Andra Mariren kapera.....	44
1.6. Beste eraikin batzuk.....	46
<b>2. Erretaulak</b> .....	52
2.1. Erretaula nagusia.....	54
2.2. Albo erretaulak.....	76
2.2.1. San Josef, San Sebastian eta San Joanes Bataiatzailearen erretaulak....	82
2.2.2. Ermuko Andra Mariren erretaula.....	100
<b>3. Beste eskultura batzuk</b> .....	108
3.1. Kristo gurutziltzatua.....	108
3.2. San Antonio Paduakoa.....	110
3.3. San Isidro Nekazaria.....	110
3.4. Jesus Haurra.....	110
<b>4. Dekorazio-arteak eta beste obra batzuk</b> .....	118
4.1. Urregintza eta zilargintza.....	118
4.2. Beste obra batzuk.....	136
<b>5. Bibliografia</b> .....	142
<b>Irudien aurkibidea</b> .....	152

# Índice

<b>Prólogo</b> .....	11
<b>Presentación</b> .....	17
<b>Introducción</b> .....	21
<b>1. Arquitectura</b> .....	29
1.1. Fases constructivas.....	29
1.2. El interior: la nave.....	31
1.3. Una torre campanario exenta.....	39
1.4. La sacristía.....	41
1.5. Capilla de Nuestra Señora de la Isla.....	43
1.6. Otras construcciones.....	43
<b>2. Retablos</b> .....	51
2.1. Retablo mayor.....	53
2.2. Retablos laterales.....	79
2.2.1. Retablos de san José, san Sebastián y san Juan Bautista.....	83
2.2.2. Retablo de santa María del Yermo.....	97
<b>3. Tallas exentas</b> .....	109
3.1. Cristo crucificado.....	109
3.2. San Antonio de Padua.....	111
3.3. San Isidro Labrador.....	111
3.4. Niño Jesús.....	113
<b>4. Artes decorativas y otras obras</b> .....	119
4.1. Orfebrería.....	119
4.2. Otras obras.....	131
<b>5. Bibliografía</b> .....	143
<b>Índice de ilustraciones</b> .....	153

---

## Hitzaurrea

---

Laudioarrok ezagunagoa dugu Andra Mariren santutegiaren alboan dagoen ermitatxoaren izena Ermualde izena baino: Santa Luzia deitu ohi diogu ingurune osoari. Lotura berezi bat izan dugu beti laudioarrok herrigunetik bost bat kilometrora dagoen txoko zoragarri horrekiko. Ez dakigu ondo zergatik, zerk eragindakoa den, baina Minteparroko azken bihurgunea gaindituta, gure ibarraren ikuspegi zoragarria atzean uzten dugularik, aldapa txikian behera, zirrarak eragindako har-kilimak nabari ditugu sabel barrenean, urratsak Isusi auzora bideratzen ditugunean ingurunearen joriari so. Igoera latz eta gogorraren ostean, Isasirantz geroz eta arinago egiten ditugun azken metroetan, ematen du urrats bakoitzak gaztetu egiten gaituela eta geure burua oroitzapenen urmalean murgiltzen doa.

Hautzaroa, gaztaroa, helduaroa... urteetako esperientzia eta bizipenak lepoan daramatzagunok, Isusira arteko seiehun metroetan gora, euskal mitologiako jeinuak agertzeko zain antzean gaude oraindik ere; askoz errazago irudikatzen ditugu gainera eguraldia lagun izanda, giro goibel eta



---

## *Prólogo*

---

El Yermo. En el día a día de Llodio, el lugar es más conocido por el nombre de la pequeña ermita adyacente al santuario: Santa Lucía. Los y las laudioarras siempre hemos sentido un vínculo especial con ese maravilloso rincón situado a cinco kilómetros del centro. Sin saber muy bien por qué, sin saber qué lo provoca, al pasar la última curva de Minteparro, en suave cuesta abajo dejando atrás la maravillosa vista de nuestro valle, al encaminarnos hacia Isusi y encarar el bellissimo paisaje que nos queda delante, notamos en el estómago las cosquillas provocadas por mariposas de emoción. Tras la dura y esforzada trepada, parece como si los pasos que damos hacia Isasi, cada cual más rápido, nos rejuveneciera. La cabeza se nos va sumergiendo en el lago de la memoria.

Infancia, juventud, madurez... los y las que hemos acumulado años de experiencia sobre nuestras espaldas, en los seiscientos metros que restan hasta Isusi, esperamos que salgan a nuestro paso los genios de la mitología vasca, más aún si el tiempo acompaña con ambiente gris y pertinaces

lainotsuz. Halakoetan, Maddi, Tartalo, lamia, Basajaun eta abarren izatea ulergarri bilakatzen zaigu eta izan ginen umearen izaerak helduarena mendean hartuta, zelanbaiteko esperantzaz begiratzen dugu bazter guztietara.

Aldapan gorako izerdiak eta nekeak uxatu nahian, Isusiko iturrian apurtxo bat ur edanda, berriz ere gora jotzen du bideak Santa Apolonia baselizarantz. Herritar askok San Antonio ermita esaten dio normalean, San Antonio Paduakoa eta San Antonio Abade dituelako alboetan Santa Apoloniak. Bide ertzeko ermitatxoaren oinarrian, Santa Apoloniarena ei den oin marka ikus daiteke. Hortzeriaren babesle dugu Santa Apolonia (gaur egun, dentisten zaindari) eta, sinesmen zaharraren arabera, Ermuko iturritik oinatz horretaraino ura ahoan hirutan eramanez gero, Santa Apoloniak urte osorako hortz osasuna bermatuko digu. Ibilbidearen zati horretan, badirudi mitologia eta sinesmen zaharren mundutik atera eta kristautasunarekin egiten dugula topo. Sinesmen zaharrak kristautasunaren pertsonaiei atxikita agertzen zaizkigu. Aspaldi batean, baserrien hormak garbitu eta arazteko kare zurizko geruza aplikatzen zen bezalaxe, kristautasunaren geruza araztaileaz estalita ditugu sinesmen eta ohitura zaharrak. Gainera, duela ez asko, santuen mirari bidez sendatu omen zirenen protesi, txanka, eskumakila eta abarrez apaindurik genuen baselizatxoa.

Ermita atzean utzita, Ermurako azken txanpari ekin diogu. Gure alde dugun desnibel leuna lagun eta helmuga bertan izateak ematen digun gogo-berritzeaz, ez dugu sumatzen ibilitako kilometroen nekea hanketan eta, Grezia zaharreko mezularien antzera, badirudi orkatiletan hegoak ditugula. Ermuko larrainera arineketan helduta, Santa Luzia ermitaren iturrian ura edan ostean, tabernaren ondoko hormatxoan eserita Andre Mariaren santutegiari begira jarrita, irudimena hegan hasten zaigu berriro eta, oraingoan, Erdi Arora egiten digu ihes. Aurrean dugun dekoratu itzelean, batere esfortzurik gabe irudika ditzakegu bando gerren garaiko jaun, zaldun, ezkutari, otsein, dontzeila eta enparauak.

nubes. En ese ambiente, la naturaleza de Maddi, Tartalo, Lamia, Basajaun y demás seres mitológicos se nos torna comprensible y escrutamos cada rincón con la mirada infantil y esperanzada que se impone a la de la madurez.

Tras sobreponernos a los sudores y los cansancios de la pendiente tomando un trago de agua en la fuente de Isusi, el camino vuelve a subir hasta la ermita de santa Apolonia. Al estar san Antonio de Padua y san Antonio Abad flanqueando la ermita, mucha gente la conoce por el nombre de san Antonio. En una piedra de la base de esta pequeña ermita al pie del camino, se puede ver la marca del camino y del pie de santa Apolonia. Apolonia es santa protectora de la dentadura (hoy día, patrona de dentistas) y, según las antiguas creencias, si se lleva agua en la boca desde la fuente del Yermo hasta la huella de la santa por tres veces, santa Apolonia garantizará la salud dental por todo un año. En este tramo del camino, es como si saliésemos del mundo de la mitología y las antiguas creencias y nos encontrásemos con el cristianismo. Las creencias ancestrales aparecen ligadas a personajes del cristianismo. Al igual que antiguamente se aplicaba cal para limpiar las paredes de los caseríos, hoy en día las creencias y costumbres antiguas aparecen bajo una capa de cristianismo adecentador. No hace mucho tiempo, la ermita estaba decorada con prótesis, muletas, bastones y demás elementos de las personas que, al parecer, habían recibido un milagro.

Dejando atrás la ermita, enfilaremos el último tramo hasta el Yermo. Con la ayuda del ligero desnivel que tenemos a nuestro favor y los ánimos renovados por tener la meta tan cerca, nuestras piernas no acusan el cansancio y parece como si nuestros pies tuvieran alas a la altura del tobillo, al igual que los de los mensajeros de la antigua Grecia. Tras llegar velozmente a la campa del Yermo y beber un poco de agua en la ermita de santa Lucía, habiéndonos sentado contra el pequeño muro del bar, nuestra imaginación vuelve a emprender el vuelo mirando al Santuario de Nuestra Señora, esta vez, a épocas medievales. Teniendo enfrente el admirable decorado que tenemos, podemos imaginarnos sin esfuerzo a los señores, caballeros, escuderos, criados y doncellas de la época de las guerras de banderizos.

Edonola ere, Bilborako bide zaharreko bazter honetan gaudela, berehala konturatzen gara historiaz betetako gune berezia dela: Andra Mariren santutegiaren hormatzarrak, eraikin nagusitik bereizitako kanpandorra, Santa Luzia ermita... Salabarri baserriaren eta Benta ondoko bolalekuaren hondakinek, gainera, xuxurla ederrean adierazten digute askoz ere garrantzi handiagoa izan zuela inguruneak gaur egun suposa dezakeguna baino. Laudioarrok memoriarekin eta historiarekin lotu gaituen zilbor-hestea ia erabat etenda dugu urteen poderioz eta, gaur egun, sinesmenak, usteak eta historia nahasten ditugu, zein den zer erabaki ezinean.

Laudio Udalak hainbat urte daramatza hainbesterentzat hain berezia den Ermualde babestu nahian. Urteetako lan horren emaitza zuzena dugu Ermualde babesteko Udalbatzak aho batez onartu berri duen plan berezia. Hala ere, babeste hutsari nahiko iritzi ez, eta ezinbesteko iruditu zaigu ingurune horretan ditugun altxor immaterialak ezagutaraztea. Helburu horrekin sinatu zuen Udalak Euskal Herriko Unibertsitatearekiko lankidetzaz hitzarmena, Ermualdeko ikuspegi historikoa, botanikoa, etnografikoa zein beste hainbat alderdi ikertu eta ezagutaraztekoa.

Eskuartean dituzun orriak, asmo itzel horren lehen urratsa baino ez dira. Urrats txikia, xumea, herabea izango da agian, baina gure herriaren historia tipulak bezala geruzaz osatuta balego, barrenean egon daitekeena ikusi ahal izateko altxatu berri dugun hau lehen geruza mehea baino ez litzateke eta 2015eko bisitetan parte hartu dugunok susmatzen hasiak gara uste baino mami handiagoa duela gure tipulatxoak. Beste barik, audioar guztion izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lehenengo proiektu honetan parte hartu duten guztiei: zorionak!!! Baita zuri ere, irakurle maite, lerrook irakurtzea gure herriarekiko maitasuna areagotzeko baliagarria izan dakizula opa dizut.

*Natxo Urkixo*  
Laudioko alkatea



En cualquier caso, estando en este rincón del antiguo camino a Bilbao, nos percatamos inmediatamente de que estamos en un lugar especial repleto de historia: los imponentes muros del Santuario de Nuestra Señora, la torre del campanario separada del edificio principal, la ermita de santa Lucía... Además, los restos del caserío Salabbarri y de la bolera adyacente a Benta nos susurran al oído que este entorno tuvo mucha más importancia en el pasado de la que hoy tiene. El cordón umbilical que vinculaba a los y las laudioarras con la memoria y la historia ha sido casi totalmente cortado en el transcurso de los años y, hoy en día, mezclamos creencias, suposiciones e historia, sin poder decidir lo que es cada cosa.

El Ayuntamiento de Llodio lleva ya varios años intentando proteger el Yermo, tan especial para tantas y tantas personas. Fruto directo de tal esfuerzo es el Plan Especial para la Protección del Yermo, aprobado unánimemente por el Pleno hace poco. Aun así, la mera protección no nos parece suficiente y estimamos fundamental dar a conocer los tesoros inmateriales con los que contamos en dicho entorno. Así pues, el Ayuntamiento suscribió un convenio con la Universidad del País Vasco. Mediante dicho convenio, buscamos estudiar y difundir, entre otras, las particularidades históricas, botánicas y etnográficas del Yermo.

Las páginas que tienes en tus manos no son sino el primer paso esa enorme iniciativa. Un paso pequeño, humilde, tímido quizás. Si la historia de nuestro pueblo estuviera conformada por capas como una cebolla, solo habríamos levantado la primera en busca de lo que subyace y las personas que hemos tomado parte en las visitas organizadas a lo largo de 2015. Intuimos que es mucho más lo que queda por desempolvar. Sin otro particular, en nombre de toda la ciudadanía de Llodio, me gustaría hacer llegar mi más sincero agradecimiento a todas las personas que han tomado parte en esta primera excavación: ¡felicidades! Y a ti, lector o lectora, te deseo que la lectura de estas líneas te valga para potenciar aún más el amor por nuestro pueblo.

*Natxo Urkixo*  
Alcalde de Llodio

---

## *Aurkezpena*

---

Gaur egun, ondare izendapen modernoan bilduta daude duela gutxira arte elkarrekiko loturarik ez zuten hainbat alor, besteak beste, kultura-ondasunak kudeatzeko, ikertzeko eta horien erabilera arautzeko ardura duten instantziak. Izan ere, nahitaezkoak dira aliantzak ondarea iraunarazteko eta horren inguruko interesa pizteko. Ermuko Andra Mariren santutegiko eta Ermualdeko monumentu multzoak Laudioko udalerraren kultur ondarean leku gailena izanagatik, mehatxupean dago, baina zenbait administrazio-instantziaren eta ikerketa talderen arteko interakzioari esker (Laudio Udala, Eusko Jaurlaritza eta OEIT, Ondare eta Eraikia Ikertzeko Taldea UPV/EHUren barrukoa), ekintza-programa zabala prestatu eta abiarazi da espazio berezi hori sustatu eta babesteko.

Belaunaldi aldaketak ondorio bereziki latzak izan ditu natur eta kultur ingurune horretan, garai batean gizartearentzat erreferente bazen ere, iruditeria kolektiboaren bigarren mailara igaro baita azken hamarkadetan. Maiz erabilitako leloak dioenez, ezagutzen ez dena ezin da maitatu eta

---

## *Presentación*

---

El patrimonio es una moderna amalgama que aúna esferas de la sociedad hasta hace poco inconexas, como las instancias encargadas de la gestión, la investigación y el disfrute de los bienes culturales. Las alianzas son obligadas cuando se pretende incentivar el interés sobre el patrimonio y se quiere garantizar su preservación en el tiempo. En el caso del conjunto monumental de santa María del Yermo y su entorno, la interacción de diferentes instancias administrativas (Ayuntamiento de Llodio y Gobierno Vasco), e investigadoras (Grupo de Investigación en Patrimonio Construido, GPAC; UPV/EHU) ha permitido desarrollar un programa de actividades extenso orientado a la promoción y defensa de ese espacio que ocupa un destacado pero amenazado lugar en el acervo cultural del municipio de Llodio.

El relevo generacional está siendo especialmente cruel con este entorno natural y cultural, ya que en las últimas décadas ha pasado de ser un referente social a ocupar un discreto segundo lugar en el imaginario

maite ez dena ezin da babestu, beraz, erakunde arteko proiektuaren barruan hainbat mekanismo garatu dira beharrezko ikerketa-, informazio-nahiz gizarteratze-lanak bideratzeko eta, horrela, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian inskribatutako kultura-ondasun horren balioa berreskuratzeko. Gidatu gaituen asmoa izan da audioarrei arrazoiak ematea euren ondarea baloratzeko, horren esanahiaz jabetzeko eta kidesun sentimendua, atxikimendua garatzeko, uste baitugu hori dela ondareaz gozatzeko eta ondarea kontserbatzeko modurik onena. Egindako jarduerak (bisita gidatu, ateak irekitzeko jardunaldi eta hitzaldi zikloek) helburu hori erdiesten lagundu izana espero dugu, hein batean behintzat. Halaber, espero dugu diseinatu eta bideratu ditugun jarduera iraunkorrek ere, alegia, instalatutako panelek eta liburu honek lan horretan laguntzea epe ertain zein luzera.

“Ermuko Andra Mariren santutegiari eta Ermualderi (Laudio, Araba) dagokien garrantzia aitortzea eta gizarteari horren berri ematea” proiektuaren zati teknikoaren zuzendari eta koordinatzaile gisa, ezinbestean eskertu behar diogu Laudio Udalarri agertutako interesa eta ikerketalanetarako eman duen finantzazioa, baita gogo onez eskertu ere. Halaber, proiektutik eratorritako hedatze eta dibulgazio-lanetarako laguntza eskertzen diogu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, besteak beste, liburu hau finantzatzen lagundu baitu, Euskal Kultur Ondarea defendatu eta babesteko 2013-2015 eperako dirulaguntzen deialdiaren bidez. Azkenik, Fernando R. Bartolomé García eta Laura Calvo García irakasleei ere eskerrak, jarraian datozen orriotan argi jasota utzi baitituzte egindako ahaleginak eta hartutako ardura.

*Sergio Escribano Ruiz eta Agustín Azcárate*  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)



colectivo. Siguiendo el manido eslogan que clama que no se puede proteger aquello que no se quiere, de la misma forma que no se puede querer aquello que no se conoce, el proyecto ha desarrollado mecanismos de investigación, difusión y socialización orientados a revalorizar este Bien Cultural inscrito en el “Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco”. Hemos tratado de ofrecer razones para que los y las laudiorras valoren su patrimonio, se apropien de su significado y desarrollen un sentido de pertenencia respecto al mismo, ya que creemos que es la mejor manera de disfrutarlo y conservarlo. Confiamos en que las actividades desarrolladas (visitas guiadas, jornadas de puertas abiertas o ciclos de charlas) hayan contribuido en mayor o menor medida en el cumplimiento de este objetivo. Esperamos que las actividades más duraderas diseñadas, como los paneles instalados o el presente libro, coadyuven en su consecución a medio y largo plazo.

Como directores y coordinadores de la parte técnica del proyecto “Puesta en Valor y Difusión Social del Santuario de santa María del Yermo y su Entorno (Llodio, Araba) queremos y debemos agradecer el interés del Ayuntamiento de Llodio en el desarrollo de este proyecto, y la consecuente financiación de las labores de investigación. Asimismo, agradecemos al Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco la financiación de las actividades de difusión y divulgación derivadas del proyecto, incluida la presente publicación, mediante las subvenciones para la defensa y protección del Patrimonio Cultural Vasco, periodo 2013-2015. Queremos agradecer, por último, la labor de los autores del presente libro, Fernando R. Bartolomé García y Laura Calvo García, cuya dedicación y esfuerzo quedan patentes en las hojas que siguen.

*Sergio Escribano Ruiz y Agustín Azcárate*  
Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

---

## *Sarrera*

---

Lan honen xedea da Laudion dagoen Ermuko Andra Mariren santutegiko ondare historiko eta artistikoa aztertzea. “Ermuko Andra Mariren santutegiari eta Ermualderi (Laudio) dagokien garrantzia aitortzea eta gizarteari horren berri ematea” proiektuaren kariaz egin da azterlana eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak nahiz Audio Udalak finantzatu dute, Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkeologia Sailarekin nahiz Artearen Historia eta Musika Sailarekin elkarlanean.

Esan bezala, Ermuko Andra Mariren santutegiko monumentu multzoa Araban dago, Laudion, Kamaraka mendiaren magalean, malda handiko zonaldean. Tenpluaren alboan apaizaren etxea dago, baita Santa Luziari, hau da, Audioko santarik maite eta gurtuenari eskainitako ermita txikia, XVII. mendean eraikitakoa. Apur bat urrunago, San Antonioren eta Santa Apoloniaren ermita dugu, mende bat beranduago eraikitakoa.

---

## *Introducción*

---

En este trabajo se aborda el estudio del patrimonio histórico-artístico del santuario de Nuestra Señora del Yermo en Llodio. Se ha realizado en el marco del proyecto “Puesta en valor y difusión social del santuario de santa María del Yermo y su entorno (Llodio)”, que ha sido financiado por el Departamento de Educación, Política lingüística y Cultura del Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Llodio, en colaboración de los departamentos de Arqueología e Historia del Arte y Música de la Universidad del País Vasco.

El conjunto de Nuestra Señora del Yermo se sitúa en Llodio (Álava), en una zona de gran desnivel de la ladera del monte Kamaraka. Junto a este templo existe una pequeña ermita que fue edificada durante el siglo XVII dedicada a santa Lucía, la imagen más venerada y querida de Llodio, una casa cural y, un poco más lejos, la ermita de san Antonio y santa Apolonia, construida un siglo más tarde.

2002ko abenduaren 4an kultura-ondasun gisa inskribatu zenetik, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian jasota geratu zen Ermuko Andra Mariren eliza, monumentu multzoen kategorian eta, beraz, babes berezia du.<sup>1</sup> Azken hilabeteotan tenpluan lanean aritu da Ondare Eraikia Ikertzeko Taldea (OEIT), Euskal Herriko Unibertsitatearen menpeko lantalde espezializatua. Santutegiari dagokion balioa aitortzea da azken helburua eta, horretarako, indusketa arkeologikoen kanpainak eta ondare artistikoaren azterlanak egin dira. Azterlan eta indusketa artistiko horien emaitzak liburu honetan jaso dira eta 2015ean egindako bisita gidatuen nahiz dibulgazio-hitzaldien bidez eman da horien berri. Metodologia historiko-artistikoa erabili dugu argitalpen hau prestatzeko, lan dokumental eta bibliografikoa objektuen ikerketa zuzenarekin uztartuta. Metodo hori oinarri hartuta, ondarea aztertu dugu, inguruko obren kalitatea eta interes artistikoa behar bezala baloratzeko eta santutegiaren abaroan mende luzez gordeta egon den ondarearen altxorak ezagutarazteko, herritar guztiek erabili eta gozatzeko aukera izan dezaten.

Ikerlari batek baino gehiagok aztertu du santutegia eta bertako ondarea. Arabako elizbarrutiaren *Monumentu-katalogoaren* seigarren liburukian, Micaela Portillak koordinatutakoan, Ermualdeko ondare multzoari buruzko monografia argitaratu zuen José María Azcárate irakasleak.<sup>2</sup> Tenpluko arkitektura-elementuak eta bertan gordetako obrak deskribatzen ditu lanean, baina eraikuntzari buruzko datu gehiegi eman gabe, elizako dokumentazioak informazio gutxi ematen baitu. Zenbait urteren buruan, Laudioko seme Kepa Sojo irakasleak *Bai Llodio* aldizkariaren zenbait aletan

---

<sup>1</sup> “Agindua, 2002ko abenduaren 4koa, Kultura sailburuarena, Laudioko (Araba) Ermuko Andra Mariren santutegia monumentu-multzo kategoriako kultura ondasun izendatzeari buruzkoa, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko.” [http://www.araba.eus/botha/Boletines/2003/002/2003\\_002\\_08271.pdf](http://www.araba.eus/botha/Boletines/2003/002/2003_002_08271.pdf) (2015/12/30ean kontsultatua). MUGURUZA MONTALBÁN, F.: “El santuario de Santa Lucía del Yermo, declarado Conjunto Monumental”, *Avnia*, 2. alea, 2003ko martxoa, 58-64 orr.

<sup>2</sup> AZCÁRATE RISTORI, J. M.: “Nuestra Señora del Yermo. Llodio”, PORTILLA VITORIA, M. J. (Zuz.): *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Las vertientes cantábricas del noroeste alavés. Ciudad de Orduña y sus aldeas*. VI. Liburukia, Vitoria-Gasteiz, Vitoria-Gasteizko Udal Aurrezki Kutxaren Kultura Ekintza, 1988, 189-194 orr.

Desde su inscripción el 4 de diciembre de 2002 como Bien Cultural, la iglesia de Nuestra Señora del Yermo pasó a formar parte del Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco en la categoría de Conjunto Monumental, por lo que goza de una especial protección.<sup>1</sup> Durante estos últimos meses el Grupo de Investigación en Patrimonio Construido (GPAC) de la Universidad del País Vasco ha estado trabajando en este templo. El objetivo final es la puesta en valor de este santuario mediante una serie de campañas de excavaciones arqueológicas y un mayor conocimiento de su patrimonio artístico, estudiado en este libro y difundido mediante unas jornadas de puertas abiertas en el año 2015 con visitas guiadas y charlas de divulgación. Para la elaboración de esta publicación hemos empleado una metodología histórico-artística que combina el trabajo documental y bibliográfico con el estudio directo de la obra. De esta manera hemos analizado el patrimonio de este santuario con la intención de valorar, en su justa medida, la calidad y el interés artístico de sus obras y de dar a conocer la riqueza patrimonial que este santuario ha cobijado a lo largo de los siglos para su uso y disfrute.

Han sido varios los autores que se han ocupado del santuario y han estudiado su patrimonio. En el sexto volumen del *Catálogo Monumental* de la diócesis alavesa, coordinado por Micaela Portilla, José María Azcárate dedicó una monografía al conjunto del Yermo.<sup>2</sup> En él se describen los elementos arquitectónicos y las obras que alberga el templo, aunque no se aportan demasiados datos sobre su construcción debido a la poca información que proporciona la documentación de esta iglesia. Unos años

---

<sup>1</sup> “ORDEN de 4 de diciembre de 2002, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Santuario de Nuestra Señora del Yermo en Llodio (Araba) como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco. 2003/00641” <http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvvac/es/bopv2/datos/2003/01/0300641a.pdf> (Consultado el 30/12/2015). MUGURUZA MONTALBÁN, F., “El santuario de Santa Lucía del Yermo, declarado Conjunto Monumental”, *Avnia*, n.º 2, marzo 2003, pp. 58-64.

<sup>2</sup> AZCÁRATE RISTORI, J. M.<sup>a</sup>: “Nuestra Señora del Yermo. Llodio”, en PORTILLA VITORIA, M. J. (Dir.<sup>a</sup>): *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Las vertientes cantábricas del noroeste alavés. Ciudad de Orduña y sus aldeas*. Tomo VI. Vitoria-Gasteiz, Obra Cultural de la Caja de Ahorros de Vitoria, 1988, pp. 189-194.

jorratu zituen santutegiari buruzko hainbat kontu. Zehazkiago, arkitektura, erretaula barrokoak, zilargintza eta urregintza aztertu zituen hamaikagarren zenbakian eta aldare nagusia eta beste bi ermitak hamabigarrenean.<sup>3</sup> Santutegiari lotutako tradizioak jasotzen dituzten beste artikulak ere ez ditugu ahaztu; besteak beste, garai batean sona handia izandako Santa Luziaren omenezko erromeria<sup>4</sup> nahiz San Antonioren omenezkoa, hori ere ezagun-ezaguna.<sup>5</sup>

Lau kapitulu handitan egituratu dugu liburua. Lehenengoan, santutegiaren arkitektura jorratu dugu, alegia, eraikuntza faseak, habearten ezaugarriak, dorrea, sakristia, Aretoko Andra Mariren kapera eta atxikita dauden beste zenbait eraikin. Bigarren kapitulu handian, santutegiko hormak apaintzen dituzten erretalei buruzkoak azaldu ditugu: erretaula nagusi errenazentista ikusgarria eta alboetako erretaulak, San Josefi eskainitakoa, San Sebastianena, San Joanes bataiatzailearen erretaula galdua eta Ermuko Andra Mari nagusi duen erretaula neoklasikoa. Ondoren, elizan gordeta jarraitzen duten eskultura exentu nagusiak aztertzen dira. Azkenik, gaur egunera arte iraun duten arte dekoratiboak aurkezten dira, interes handiko zenbait pieza azpimarratuta, pieza horiek erakusten baitute santutegiak ingurunean izan duen garrantzi handia. Horrez gain, ikerketa egiteko erabili den bibliografia ere aletzen da azken atalean.

---

<sup>3</sup> SOJO GIL, K.: “El retablo rococó y los artistas cántabros de la segunda mitad del siglo XVIII en el valle de Llodio”, *Bai Llodio*, 2. alea, 1993. SOJO GIL, K.: “El santuario de Santa María del Yermo: eremitas y templarios entre la historia y la leyenda”, *Bai Llodio*, 11. alea, 1995. SOJO GIL, K.: “El retablo protorrenaciente del Yermo y las ermitas de Santa Lucía y San Antonio”, *Bai Llodio*, 12. alea, 1995.

<sup>4</sup> MUGURUZA MONTALBÁN, F.: “Santa Lucía del Yermo: la fiesta de los vizcaínos”, *Avnia*, 19. alea, 2007ko uda, 6-28 orr.

<sup>5</sup> MUGURUZA MONTALBÁN, F.: *op. cit.*, 21-22 orr. NAVARRO ULLÉS, J. C.: *Las romerías de Santa Lucía del Yermo*, 1995.

después el profesor Kepa Sojo, natural de Llodio, dedicó algunos números de la revista *Bai Llodio* a este santuario. En concreto en el número once se estudian la arquitectura, los retablos barrocos y la orfebrería, mientras que el siguiente se dedica al altar mayor y a las otras dos ermitas.<sup>3</sup> No nos olvidamos de otros artículos que recogen las tradiciones ligadas a este santuario, como la romería de santa Lucía que tanta fama tuvo en tiempos pretéritos<sup>4</sup> junto con la de san Antonio, antaño de gran popularidad.<sup>5</sup>

El trabajo lo hemos estructurado en base a cuatro grandes capítulos. El primero dedicado a la arquitectura del santuario, donde hemos indagado en sus fases constructivas, en las características de las naves, la torre exenta, la sacristía, la capilla de Nuestra Señora de la Sala y otras construcciones anejas. Otro de los grandes apartados lo ocupan los retablos que jalonan los muros de este santuario: su espectacular retablo mayor renacentista y los laterales, dedicados a san José, san Sebastián, el desaparecido de san Juan Bautista y el neoclásico presidido por Nuestra Señora de santa María del Yermo. Prosigue el trabajo con el estudio de las principales tallas exentas que aún se conservan en esta iglesia. Por último, presentamos las artes decorativas que han llegado hasta nuestros días y destacamos algunas piezas de gran interés que demuestran la trascendencia que este santuario ha tenido en su entorno, así como una recopilación de la bibliografía empleada para la realización de este estudio.

---

<sup>3</sup> SOJO GIL, K.: “El retablo rococó y los artistas cántabros de la segunda mitad del siglo XVIII en el valle de Llodio”. *Bai Llodio*, n.º 2, 1993. SOJO GIL, K.: “El santuario de Santa María del Yermo: eremitas y templarios entre la historia y la leyenda”. *Bai Llodio*, n.º 11, 1995. SOJO GIL, K.: “El retablo protorrenaciente del Yermo y las ermitas de Santa Lucía y San Antonio”. *Bai Llodio*, n.º 12, 1995.

<sup>4</sup> MUGURUZA MONTALBÁN, F.: “Santa Lucía del Yermo: la fiesta de los vizcaínos”, *Amia*, n.º 19, verano 2007, pp. 6-28.

<sup>5</sup> MUGURUZA MONTALBÁN, F.: “Santa Lucía del Yermo...”, *op. cit.*, pp. 21-22. NAVARRO ULLÉS, J. C.: *Las romerías de Santa Lucía del Yermo*, 1995.

---

# 1. Arkitektura

---

Ermuko Andra Mariaren santutegiko monumentu multzoa leku ederrean dago kokatuta; bi nabe eta hainbat kapera dauzkan elizak, sakristiak eta elizaren bi albo inguratzen dituen atariak osatzen dute multzoa eta, horrez gain, Santa Luziari eskainitako ermita du atxikita. (1. irud.)

## 1.1. ERAIKUNTZA FASEAK

Eliza gehienek kasuan gertatzen den bezala, mendez mende egindako hainbat zabalkuntzaren eta eraberritzeren emaitza da Ermuko santutegiak egun duen itxura. Hortaz, XV. mendearen bukaeratik gaur egunera arte tenplua itxuraldatu duten eraikuntza faseak aztertuko ditugu. Orain arte behintzat, ez dugu eskuratu tenpluaren lehenengo urteei buruzko datu zehatzak lortzeko erreferentzia dokumentalik, baina ezaugarri estilistiko eta formalei esker baieztatu dezakegu Ermuko Andra Mariaren ermita Aro Berriaren hasieratik datorkigula, ondorengo urteetan multzoa nabarmenki eraldatu zuten lanak egin baziren ere.



---

# 1. *Arquitectura*

---

El conjunto de santa María del Yermo, situado en un bello paraje, está formado por una iglesia de dos naves con varias capillas, una sacristía y un pórtico que rodea la iglesia por dos de sus lados, al que se añade una ermita anexa dedicada a santa Lucía. (Fig. 1)

## **1.1. FASES CONSTRUCTIVAS**

Como sucede en la mayoría las iglesias, este santuario es consecuencia de varias ampliaciones y reformas que se han ido sucediendo a lo largo de los siglos. Por ello vamos a estudiar las distintas fases de construcción que desde finales del siglo XV hasta la actualidad han ido modificando la apariencia de nuestro templo. Hasta el momento no poseemos referencias documentales que aporten datos precisos sobre los años iniciales, pero las características estilísticas y formales nos permiten datar la ermita de Nuestra Señora del Yermo a comienzos de la Edad Moderna, aunque durante los siguientes siglos se acometieron obras que alteraron significativamente el conjunto.



1. irudia. Ermuko Andra Mariaren santutegia kanpotik ikusita

**Figura 1.** Vista exterior del santuario de Nuestra Señora del Yermo



Álvarez Llamas egileak duela gutxi argitaratutako ikerketan sei eraikuntza fase desberdintzen dira multzoan.<sup>6</sup> (2. irud.) Haren ikerketen arabera, XV. mendean eraiki ziren nabe nagusia zein albokoa eta hurrengo mendean burualdea eta transeptu edo gurutzadura. Beste gizaldi baten buruan handitu zen santutegia, kapera atxikita, ataria eraikita eta, sakristiari sarrera ipintzeko, burualdea irekita. Hortaz, XVII. mendean eraikuntza jarduera bizi-bizia egon zen Ermualden. XVIII. mendean, Errosarioaren kapera altxatu zen, XIX. mendean lanak egin ziren sakristian eta, ondoren, komuna ipini zen bertan. Ataria ez zen XX. mendera arte bukatu; beheko aldera ere zabaldu zen, elizan sartzeko bi ateak babes zitzaizkien.

## 1.2. BARRUALDEA: NABEA

Eliza XVI. mendekoa izanda, euskal gotikoa da estiloa, gotiko-errenazentista gisa ere ezaguna.<sup>7</sup> Gaur egun ikus dezakegun tenplua baino lehenago, leku berean, basiliza bat egon zela uste da, baina XV. mendeko zenbait dokumentutan egiten zaizkion aipamenengatik baino ez dugu horren berri. Kamaraka mendiaren magaleko harrobiko hareharriz eraiki zen.<sup>8</sup> Material horrek harginen lana errazten du, kareharria baino bigunagoa delako.

---

<sup>6</sup> ÁLVAREZ LLAMAS, A.: *Propuesta sobre la evolución constructiva de Santa María del Yermo en Llodio-Llodio*. Master bukaerako lana, Eraikitako ondarearen eta eraikinen birgaitze, zaharberritze eta kudeaketako unibertsitate masterra, Euskal herriko Unibertsitatea (2014ko iraila), argitaratu gabea. Lan horren helburua elizaren eraikuntza aldiak zehaztea zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu egileari argitalpen honetarako plantaren eta eraikuntza faseen irudiak laga izana.

<sup>7</sup> Azcarateren eta Sojoren ustez, XVI. mendearen lehen erdikoa da, baina Iturratek eta Álvarezek XV. mendearen bukaeran kokatzen dute eraikuntza. AZCÁRATE RISTORI, J. M.: *op. cit.*, 189. ITURRATE SÁENZ DE LAFUENTE, J.; ELUSTONDO, J. A.; VILLAREJO GARAIJAR, A.: *Guía para visitar los santuarios marianos de los territorios históricos de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Madril, Ediciones Encuentro 1999, 104 orr. ÁLVAREZ LLAMAS, A.: *op. cit.*, 49 orr.

<sup>8</sup> Inguruan kareharria arruntagoa izan arren. MUGURUZA MONTALBÁN, F.: *op. cit.*, 12 orr.

El reciente estudio de Álvarez Llamas diferencia hasta seis fases en la construcción del conjunto.<sup>6</sup> (Fig. 2) Según sus investigaciones, en el XV se levantó la nave principal y la lateral y durante el siglo siguiente la cabecera y el crucero. Una centuria más tarde se amplió el santuario con una capilla anexa y un pórtico y se abrió la cabecera para situar la entrada de la sacristía. El siglo XVII es, por lo tanto, un siglo con una gran actividad constructiva en el Yermo. En el XVIII se erige la capilla del Rosario y en el XIX se realiza una modificación en la sacristía donde se colocará, más tarde, un aseo. Habrá que esperar hasta el XX para ver terminado el pórtico, que se amplía a los pies para cobijar las dos puertas de entrada de la iglesia.

## 1.2. EL INTERIOR: LA NAVE

En cuanto al estilo, la iglesia es una construcción del siglo XVI, siguiendo el Gótico vascongado, también llamado Gótico-Renacimiento.<sup>7</sup> Se cree que hubo una ermita anterior al templo que hoy contemplamos, cuya existencia conocemos solamente por las referencias que a esta iglesia medieval se hace en varios documentos del siglo XV. Está edificada en piedra arenisca<sup>8</sup> extraída de las canteras de ladera del monte Kamaraka. Este tipo de piedra facilita el trabajo de labra por ser un material más modelable que la piedra caliza.

---


<sup>6</sup> ÁLVAREZ LLAMAS, A.: *Propuesta sobre la evolución constructiva de Santa María del Yermo en Llodio-Llodio*. Trabajo de fin de máster, máster universitario en Restauración y gestión integral del patrimonio construido, Universidad del País Vasco, septiembre de 2014. (Inédito). El objetivo de este trabajo era descubrir los estados constructivos de la iglesia. Agradecemos a su autora la cesión para esta publicación de los gráficos de la planta y de las fases constructivas.

<sup>7</sup> Para Azcárate y Sojo es de la primera mitad del XVI, mientras que Iturrate y Álvarez adelantan su construcción hasta finales del siglo XV AZCÁRATE RISTORI, J. M.<sup>a</sup>: *op. cit.*, p. 189. ITURRATE SÁENZ DE LAFUENTE, J.; ELUSTONDO, J. A.; VILLAREJO GARAIZAR, A.: *Guía para visitar los santuarios marianos de los territorios históricos de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Madrid, Ediciones Encuentro, 1999, p. 104. ÁLVAREZ LLAMAS, A.: *op. cit.*, p. 49.

<sup>8</sup> Aunque en ese entorno se da más la caliza. MUGURUZA MONTALBÁN, F.: “Santa Lucía del Yermo...”, *op. cit.*, p. 12.



Santutegia aldapa baten gainean dago, eremu malkartsuan. Habearte nagusiaz gain, horma-bularrez bereizitako bi zati dituen albo-habearte bat du epistolaren aldean. Kontrako aldean bi kapera daude, horietako bat bost giltzarriko gangarekin. (3-4. irud.) Habearte nagusia 21 metro altu da zorutik absideraino eta, gutxi gorabehera, 6,5 metro zabal. Albo-habeartea baxuagoa da; 13 metro altu ditu eta 4,5 metro zabal. Aldarearen alde okto-



**2. irudia.** Ermuko Andra Mariren santutegiko eraikuntza faseak (Egilea: Ana Álvarez Llamas)

**Figura 2.** Fases constructivas del santuario de Nuestra Señora del Yermo  
(Autora: Ana Álvarez Llamas)

El santuario se asienta sobre una pendiente, en un terreno escarpado. Consta de una nave principal y una lateral en el lado de la epístola con dos tramos separados por contrafuertes. También observamos dos capillas en el lado contrario, una de ellas con bóveda de cinco claves. (Figs. 3 y 4) La nave central mide 21 metros hasta el ábside y tiene una anchura aproximada de 6,5 metros. La nave lateral, de menor altura, tiene 13 metros de largo y 4,5 de ancho. Como es habitual en las iglesias del País Vasco, la cabecera es ochavada. Por ella se accede a la sacristía. A los pies de la iglesia se pueden observar los apoyos de un gran coro alto que se conservó hasta las últimas décadas del siglo pasado,<sup>9</sup> cuyas escaleras se construyeron en 1777 por Francisco de Beraza, a quien se le pagó por ellas 658 reales.<sup>10</sup>


Las bóvedas son muy sencillas, de crucería, y conservan las claves en piedra. Como era habitual, las familias nobles hacían ver su poder erigiendo su propia capilla. La del Rosario, en la que hoy contemplamos un retablo presidido por la Andra Mari, está cerrada por una cubierta un poco más compleja que las bóvedas de la nave, con terceletes y cinco claves. En una de las claves se puede ver el símbolo de los Anuncibay, una de las familias más importantes de Llodio y en el muro, tras el altar, su escudo "con cruz flordelisada y corazones o panelas".<sup>11</sup> Los nervios de las bóvedas descansan sobre columnillas y ménsulas. Algunas columnas poseen un fuste circular sin capitel, mientras que el resto están coronadas por un capitel corrido sin decoración. En ellas todavía no se aprecia el clasicismo del Renacimiento, sino que seguimos observando las características estilísticas del Gótico.

---

<sup>9</sup> AZCÁRATE RISTORI, J. M.<sup>a</sup>: *op. cit.*, p. 189. ÁLVAREZ LLAMAS, A.: *op. cit.*, p. 58. (Inédito) En 1977 se recomienda retirar el coro de madera, algo que se hace efectivo en 1990.

<sup>10</sup> Archivo Histórico Provincial de Álava (en adelante AHPA), Juan de Barrones, 12141, 1777, ff. 138-143 v. En los años 80 se sugiere la limpieza de "la pintura ocre que se le dio a las paredes en piedra de buena sillería hace un cuarto de siglo", la limpieza del retablo y se recomienda suprimir el coro. ÁLVAREZ LLAMAS, A.: *op. cit.*, p. 36.

<sup>11</sup> AZCÁRATE RISTORI, J. M.<sup>a</sup>: *op. cit.*, p. 191.



1. Ermuko Andra Mariren santutegia / Iglesia de Santa María del Yermo
2. Sakristia / Sacristía
3. Kanpoan dagoen kapera / Capilla exterior
4. Mendebaldeko elizpea / Pórtico oeste
5. Hegoaldeko elizpea / Pórtico sur
6. Lorategia / Jardín aterrazado
7. Kanpandorra / Campanario
8. Santa Luzia ermita / Ermita de Santa Lucía

3. irudia. Elizaren eta Santa Luzia ermitaren oinplanoa (Egilea: Ana Álvarez Llamas)

**Figura 3.** Planta de la iglesia y de la ermita de santa Lucía (Autora: Ana Álvarez Llamas)



Los numerosos vanos que jalonan los muros de la iglesia contribuyen a la iluminación del templo. En la cabecera se abren ventanas a ambos lados del retablo mayor y en los ochavos.<sup>12</sup> Observamos distintos tipos de vanos rompiendo la rotundidad de los muros: una ventana geminada, rosetones con tréboles de cuadrifolios en la nave lateral y a los pies, así como otros vanos de estructura rectangular. Es destacable la vidriera de la nave lateral en la que se representa a san Nicolás y a san Sebastián. Aunque hoy observemos los paños de la iglesia desnudos, con sillares de piedra perfectamente labrados, hay que recordar que los templos se pintaban de vivos colores y se adornaban con escenas religiosas dispuestas en retablos fingidos, pinturas murales o simplemente se dibujaban despieces de sillería buscando crear la impresión de que la iglesia estaba construida con los materiales más nobles.

Volviendo los ojos hacia el suelo, en el enlosado pétreo de la iglesia se observa el encajonado de las sepulturas. Fue Carlos III quien prohibió en 1787 el enterramiento intramuros, por lo que a partir de esa fecha se empezaron a crear los primeros camposantos. Hasta entonces los fallecidos eran enterrados en las propias iglesias, con todos los problemas sanitarios que ello conllevaba. En nuestro templo había espacio para diecinueve sepulturas que tenían de profundidad “cuatro pies y medio de hueco, a lo ancho dos, a lo largo siete, los tabiques del encajonado un pie de grueso o lo que tuviese el ladrillo.” Tomás de la Peña se encargó de dibujar la traza del encajonado. Al remate de la obra, en 1779, se presentaron varios artistas buscando ofrecer la cantidad más ajustada posible para ser los canteros elegidos para ejecutar el diseño de la traza. Martín de Arana, oficial cantero, ofreció 5575 reales. La oferta fue mejorada por José de Esnarriaga, vecino del valle de Okondo (Álava), que rebajó el importe hasta 4550 reales, adjudicándose, aunque finalmente cedió la obra a Miguel de Arechabala.<sup>13</sup>

4. irudia. Ermuko Andra Mariren elizaren barrualdea

**Figura 4.** Interior de la iglesia de Nuestra Señora del Yermo

<sup>12</sup> AZCÁRATE RISTORI, J. M.<sup>a</sup>: *op. cit.*, p. 190. Según Azcárate, en los ventanales de la cabecera hay restos de las vidrieras originales del siglo XVI.

<sup>13</sup> AHPA, Francisco Antonio de Acha, 11578, 1779, ff. 386-394v.







gonala da, Euskal Autonomia Erkidegoko elizetan ohikoa denez. Han dago sakristiarako sarrera. Elizaren oinetan, joan den mendeko azken hamarkadetara arte iraun zuen koru altu handi baten eustazpiak ikus daitezke;<sup>9</sup> Francisco de Berazak eraiki zituen koruaren eskailerak 1777an eta 658 erreal eman zitzaizkion ordainetan.<sup>10</sup>

Gurutze-gangak soilak dira oso eta giltzarriak dituzte oraindik. Nobleziako familiek beren kaperak eraikiarazi ohi zituzten, zeukaten boterearen erakusgarri. Gaur egun, Andra Mariren erretaula gordetzen duen Errosarioaren kaperara ixteko, habearteko gangek baino konplexutasun handiagoa duen estalkia dago, tertzeleteak eta bost giltzarri dituena. Giltzarrietako batean Laudioko leinurik garrantzitsuenetako baten ikurra ikus daiteke, alegia, Anuntziabaitarra eta, aldarearen atzeko horman, euren armarrria dago “lis-loredun gurutzearekin eta bihotzen edo makal hostoen irudiekin”.<sup>11</sup> Gangen nerbioak kolomatxo eta mentsuletan bermatzen dira. Zutabe batzuek kapitelik gabeko fuste biribila dute, baina gainerakoek apaingarririk gabeko kapitel jarraituak dituzte goiko aldean. Zutabeotan ez da Errenazimentuaren klasizismorik antzematen oraindik; horietan ere, ezaugarri estilistiko gotikoak dira nagusi.

Elizaren hormetako bao ugariak tenplua argiztatzeko balio dute. Aldarearen aldean, leihoak daude erretaula nagusiaren bi alboetan eta zortzirenetan.<sup>12</sup> Askotariko baoak daude hormen irmotasuna apurtzen: leiho geminatu bat, lau hostoko hirustadun arrosa-leihoak albo-habeartean nahiz oinetan eta egitura laukizuzeneko beste zenbait bao.

---

<sup>9</sup> AZCÁRATE RISTORI, J. M.: *op. cit.*, 189 orr. ÁLVAREZ LLAMAS, A.: *op. cit.*, 58 orr. (argitaratu gabea). 1977an zurezko korua kentzea gomendatu zen, baina ez zen 1990era arte kendu.

